



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITURETARAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN BIGARREN ALDAKETA

Aurrerakina

I. agiria - Memoria

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Jasangarritasun
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Sostenibilidad

IDOM

2025eko abuztua

AURRERAKINA – Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituretarako Lurralde Plan Sektorialaren Bigarren Aldaketa

I. agiria

Memoria

II. agiria

Dokumentazio grafikoa

III. agiria

Hasierako Agiri Estrategikoa

Aurrerakina - Aurkibidea

1	Aurrekariak eta xedea	1
2	Esparru arauemailea eta estrategikoa.....	5
2.1	Lurralde Plan Sektorialen antolamendurako esparru autonomikoa.....	5
2.2	Hondakinen kudeaketari buruzko Europako Batasuneko esparrua	5
2.3	Hondakinen kudeaketari buruzko esparru estatala	6
2.4	Hondakinen kudeaketari buruzko esparru autonomikoa.....	6
2.5	Esparru forala: Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko estrategia.....	9
3	Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak.....	11
4	Jarduera-eremua. LPSaren aldaketaren irismena.....	12
5	Aldatzeko beharrak. Aurreikusitako jarduerak	14
5.1	Kokalekua hautatzeko abiapuntu diren baldintzatzaileak	15
5.1.1	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).....	15
5.1.2	Lurralde Plan Sektorialak.....	16
5.1.3	Ustezko gunek arkeologikoak eta estazio megalitikoak. Euskal Kultura Ondarea.....	19
5.2	Aintzat hartutako aukerak eta hautatutako irtenbidea	19
5.2.1	0. aukera: Ez jardutea.....	20
5.2.2	1. aukera: Lasarte-Donostialdea.....	20
5.2.3	2. aukera: Eskuzaitzeta	22
5.2.4	3. aukera: Loistegikogaina.....	24
5.2.5	Hautatutako irtenbidea	26

1 Aurrekariak eta xedea

Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala (LPS) [uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren](#) bidez onartu zen. Helburu du Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegituren kokapena aurreikustea, Europako, estatuko eta autonomiako araudietan ezarritako jasangarritasun-irizpideen arabera eta [Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren \(GHHKPO\) 2002-2016 helburuak](#) eta haren [Aurrerapen Agiria \(AA\) 2008-2016](#) betetzeko.

2011n, Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko eredua sakonean aztertu zen. Azterketa hark oinarritzat hartu zituen etxean eta saltokietan sortutako hondakinak, haien kopurua, motak, urteetan zehar izandako bilakaera, etorkizunerako iragarpena eta une hartan indarrean zegoen legeriak zehaztutako betebeharrak. Alabaina, GHHKPO 2002-2016ak eta AA 2008-2016ak jasotako iragarpenak ez ziren egokiak hondakin organikoen eta bestelako gauza birziklagarrien gaikako bilketak eta krisi ekonomikoak eragin zuten egoerarako.

Hori dela eta, LPSa Gipuzkoan sortutako hondakin-motei eta -kopuruei egokitu behar zitzaizela ondorioztatu zen, indarreko legeriak ezarritako mailetara egokitzeko eta batasunaren hondakin-hierarkia, isurpenei buruzko legeriak ezarritako eskakizunak, GHHKPO 2000-2016aren AA 2008-2016aren helburuak eta horien oinarri estrategikoak betetzeko. Ildo horretatik, Donostialdea-Bidasoan konposta eta/edo biometanizazioa gauzatzeko fabrika eta Sasieta eta Debarreneneko Mankomunitateetan Transferentzia Estazioak eta bigarren mailako hondakin biltegia eraiki behar zirela erabaki zen.

Hala, 2018an Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketa onartu zen, [apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren](#) bidez.

Bestalde, 2019an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak hiri-hondakinak kudeatzeko plangintza-zikloa onartu zuen, [martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren](#) bidez: [Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra 2019-2030](#). Plan berria Gipuzkoako aurreko planaren arabera garatu da, eta prebentzioa eta ekonomia zirkularra ditu oinarritzat, helburua izanik lurraldea ekonomia zirkularrerako trantsizioan, klima-aldaketaren kontrako borrokan, garapen jasangarrian eta enplegu berdearen sorreran aitzindari bilakatzea.

Besteak beste, GHHKPO 2019-2030ak hondakin berrerabilpena sustatzen du, eta hartara, hondakin bihurtutako produktu edo osagaiak prestatzeko jarduerak babesten ditu, horiek berrerabili ahal izateko. Konpromiso hori GHHKPO 2019-2030aren 4. helburuaren bitartez gauzatuko da, honako hau proposatzen baitu: «Aurrera egitea berrerabiltzeko prestaketan (konpontzea, lehengoratzeta edo berriz manufakturatzea), fluxujakin batzuk lehenetsita: erabiltzen ez diren ibilgailuak, ehun-gaiak, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak, altzariak eta konpondu eta bigarren bizitza lor dezaketen beste hondakin batzuk».

Azpiegituren alorreko beharrei dagokienez, GHHKPO 2019-2030ak aintzat hartzen du Gipuzkoa 2030era arte hiri-hondakinak kudeatzeko eta tratatzeko ahalmena duela.

Alabaina, lehendik dauden instalazioak aztertzeke eta hondakin-mota hauetan hobekuntzak egiteko beharra planteatzen du:

- Ontziak: azpiegiturak handitu behar diren ala ez aztertzea, ontziak bereizteko eta sailkatzeke lerro berriak sustatzeko eta puntu berde gisa sailkatuta ez dauden antzeko hondakinak birziklatzeke.
- Bio-hondakinak: konpost eta/edo biometanizazioaren alorrean lehendik dauden azpiegiturak handitu behar diren aztertzea.
- Berrerabilgarriak: berrerabilpena prestatzeke zentroa sortu behar den eta egon litezkeen lankidetza publiko-pribatuak aztertzea.

GHHKPO 2019-2030ko agindua betez, 2020an Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldean berrerabiltzeke prestakuntza-beharren ebaluazioa egin zuen ("Lurraldearen beharren azterketa, berrerabilgarriak izan daitezkeen hondakinaren tratamenduari estaldura emango dion berrerabiltzeke prestakuntza-zentro bat izateke", 2020ko ekaina). Dokumentu hau Mankomunitateen laguntzarekin garatu zen, eta bertan berrerabiltzeke prestakuntzaren egoera aztertzen zen, eta beheko sareke hondakinaren azpiegiturei zein goiko sareke azpiegiturei buruzke ekintza-beharrek ondorioztatzen ziren.

Ehun-gaiari dagokionez, beharren analisiak gaur egungo bilteta eta tratamendu ereduak ebaluatu zuen. Eredu hori bide publikoan instalatutako edukiontzietan eta operadore pribatuek zuzenean jaso eta kudeatzean (EMAUS S.COOP, EMAUS Gipuzkoa eta Koopera, Irunen, Arrasaten eta Donostian hiru zentro aktiborekin) oinarritzen da. Diagnostikoaren arabera, bide publikoan edukiontzien bidez ehunak biltzeke egungo sistema zuzena da, emaitza positiboekin. Hala ere, nahiz eta horretarako esleitutako edukiontzietan uzten den arropa gehienbat berrerabiltzeke erabiltzen dela pertzepzio orokorra egon, errealitateak erakusten du hori ez dela horrela. Aitzitik, ia ezinezkoa da helburu horretara bideratzea sortutako bolumen handiagatik, osaeragatik berrerabiltezinak diren ehun eta osagarri asko edukiontzi horretara ere joaten direlako, ehungintzako operadore pribatuen identifikazio eta esku-banaketako prozesuen muga teknikoengatik, eta salgai jarritako berrerabilitako produktuen eskari-mugengatik, biztanleria-eremu geografiko oso mugatuari erantzuten bait diote.

Beharren azterketak, beraz, GHHKPOren helburuak eraginkortasunez bete ahal izateke gai berrerabilgarriak biltzeke eta kudeatzeko eredu berri bat modu aktiboan sustatu behar dela ondorioztatu zuen, egungo ereduak berrerabilpenerako prestakuntzari dagokionez oso operatibotasun mugatua duela kontuan hartuta. Ikerketaren arabera, berrerabiltzeke prestakuntza-jardueraren eraginkortasunaren igoera lurralde ikuspegi orokorrekarekin eta kudeaketa-prozesu aurreratuekin egin beharko litzateke. Beharrezkoak diren instalazioen kostu handia eta berrerabilpen eraginkorragoa prestatzeke behar diren langileen kualifikazioa direla-eta, beharrezkoa da zentro bakarra izatea, lurralde osoari modu operatibo eta eraginkorrean erantzuteke. Egungo zentroak goiko sare gisa erabil daitezke, ondoren berrerabiltzeke prestakuntza-zentro bakar batera eramateke, lurraldearen beharrei erantzunez. Azpiegitura horren titulartasunak publikoa izan beharko luke, lurraldeko

hondakinen kudeaketaren goiko-sarearen parte izanik. Hala ere, kudeaketa partekatua izan daiteke, edo lehiaketa edo kontzesio bidez esleitu.

Alternatiba plurizentriko posible batek abantaila gisa aurkeztuko lituzke bilketa-ibilbideak errazago kudeatzea eta berrerabilpena bilketa-eremu berean aprobetxatzea. Hala ere, alternatiba honetan aurreikusitako zentroen eskala txikiak teknika, instalazio eta praktika hobeak txertatzea oztopatuko luke, behar duten inbertsio-bolumenagatik. Horrez gain, Mankomunitateek langile espezializatuak kontratatu beharko lituzkete, horrek dakarren kostu gehigarriarekin, eta berrerabilitako produktuen azken salmenta-eskaera oso mugatua izango litzateke.

Kokapenari dagokionez, azterketak adierazten du Lurralde osoko beharrei erantzungo dien zentro berri batek errepide-sare orokorrarekin ondo komunikatuta egon beharko lukeela, berrerabiltzeko prestatzeko gaien garraioa bizkortzeko. Gainera, ahal den neurrian, hondakin-kopuru handienak sortzen dituzten biztanle-gune handiengandik ahalik eta gertuen egon beharko luke. Gipuzkoako Ingurumen Konplexuaren egungo kokalekuaren ondoan egoteak Gipuzkoako biztanleriaren ia %70i erantzungo lioke, 30 kilometro baino gutxiagoko eragin-eremu batean, eta horrek ustiapen-fasean ingurumen-onura nabarmenak ekarriko lituzke.

Pare bat urte geroago, *Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzen dituen 7/2022 Legea* onartzean, aurreko ondorioa sendotu egin zen. Izan ere, lege horren 26. artikulua udal-hondakinak berrerabilpenerako prestatzeko eta horiek birziklatzeko jardueren helburuak zehazten ditu, eta 2025ean mota horretako tratamendu-jarduerak gutxienez %55 areagotuko direla aurreikusi. Gainera, legeak ezartzen du guztizko hondakinen %5 gutxienez berrerabilia izateko prestatu behar dela, eta kopuru horrek, funtsean, ehun-hondakinak, tresna elektrikoak eta elektronikoak hondakinak, altzariak eta berrerabiltzeko prestatu daitezkeen beste hondakin batzuk hartuko lituzke barne. Ehuneko horrek %10era igo beharko luke 2030erako, eta %15era, berriz, 2035erako.

[2023ko GHHKPO 2019-2030ren Jarraipen Dokumentuaren](#) arabera, Gipuzkoan udal-hondakinen %0,96 prestatzen zen berrerabilpenerako.

Beraz, gaur egungo kudeaketarekin jarraitzea eta zentrorik ez eraikitzea ez da aukera bideragarria, ez baitator bat GHHKPO 2019-2030aren 4. konpromiso estrategikoarekin eta 7/2022 Legearen helburu kuantitatiboekin. Aldiz, eredu plurizentriko baten aukera ez litzateke tekniko zein ekonomikoki bideragarria izango, Lurraldearen egitura kontutan hartuta. Bestalde, 7/2022 Legeak ekoizlearen erantzukizun hedatua aurreikusten du ehun-gaien, altzarien eta tresnen hondakinei eta ontziak ez diren nekazaritzako plastikoei dagokienez. Ehungintzaren eta oinetakogintzaren sektoreak antolatu dira jada, eta bi elkarte sortu dituzte, ekoizlearen erantzukizun hedaturako sistema kolektibo (SCRAP) berria bultzatzeko.

Ilido horretatik, 7/2022 Legeak xedatzen du 2024ko abenduaren 31 baino lehen ehun-gaien hondakinak bereizita biltzeko sistema ezarri behar dela eta 2025ean ehun-gaietan ekoizleen erantzukizun hedaturako arauak indarrean sartu behar direla. Horrek bidea zabaltzen du ehun-gaiak berrerabilpenerako eraginkortasun handiagoaz prestatzeko. Lurraldeko ehun-gaien kudeaketa Berrerabilpena

Prestatzeko Zentro (BPZ) batean zentralizatzeko berrerabilpen eraginkorra lortzeko aukera bideragarri bakarra da. Izan ere, eskalako ekonomiaren abantailak aprobetxatu, kostuak murriztu eta baliabideak optimizatzen ditu.

Hori guztia dela eta, Jasangarritasun Departamentuak BPZ bat eraiki nahi du ehungaiak tratatzeko. Indarrean dagoen 2018ko LPSak ez du azpiegitura berri hori aurreikusten, eta, beraz, beste aldaketa bat egin behar zaio.

Bigarren aldaketa hori izapidetzeko prozedurari lotuta, 2024ko abenduaren 2an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun Departamentuak Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari galdetu zion Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren LPSa funtsean aldatu behar zen, BPZa lurraldeko hiri-hondakinak kudeatzeko mapan txertatzeko. 2024ko abenduaren 12an, lurralde-antolamenduko arduradunak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketa horren eta horren irismenen gaineko eskumena zuela aitortuzuen, baina alderdi zehatzei eta osagarriei zegokienean soilik, 46/2020 Dekretuaren 18.3 artikuluari jarraikiz.

2025eko uztailaren 30ean, uztailaren 18ko Gipuzkoako Foru Aldundiak 175/2025 Foru Agindua argitaratu zuen. Horren bidez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko prozedura abiarazi zen. Agiria funtsean aldatuko ez zela justifikatu zuen, eta herritarrek aldaketa berrian parte hartzeko programa txertatu.

Hortik abiatuta, esku artean dugun memoria prozeduraren fase honi dagokio:



2 Esparru arauemailea eta estrategikoa

LPSaren memoria 2009ko uztailan onartu zen, eta esparru arauemailearen eta estrategikoen atalean, LPSaren helburuarekin lotutako araudia xehetasunez deskribatzen zuen. Esparru hori 2018ko apirilaren LPSa aldatzean eguneratu eta osatu zen. Oraingo aldaketa honekin batera, LPSaren bigarren aldaketaren ondorioz azken urteotan araudiak izandako bilakaeraren laburpen eguneratua aurkeztu da.

LPSaren bigarren aldaketa lurraldean sortutako hiri-hondakinen ehun-gaietara mugatzen denez, esparru arauemaileak hondakinen eta ehun-gaien kudeaketari eragin diezaioketen araubideak eguneratzen ditu soilik, eta ez ditu aldaketa horren irismenetik kanpo dauden hondakin-jarduera edo -korrante zehatzak eguneratzen (hala nola araztegiko lohiak, ontziak eta ontzien hondakinak, TEEH, pilak eta metagailuak, materia organikoa, etab.).

2.1 Lurralde Plan Sektorialen antolamendurako esparru autonomikoa

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, lurralde-antolamendurako tresna desberdinak ezartzen dituena: Lurralde Antolamendurako Gidalerroak, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.
- Lurralde-antolamendurako planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua.
- Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.
- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea, legearen II. eranskinean jasotako plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluaziorako araubidea eguneratzen dituena.

2.2 Hondakinen kudeaketari buruzko Europako Batasuneko esparrua

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentaraua, hondakinei buruzkoa eta zuzentaru jakinak indargabetzen dituena (Hondakinen Esparru Zuzentaraua).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraua, hondakinei buruzko 2008/98/CE Zuzentaraua aldatzen duena.

- Batzordearen 2019ko ekainaren 7ko 2019/1004 Egikaritze Erabakia (EB), hondakinei buruzko datuak kalkulatu, egiaztatu eta jakinarazteko moduari buruzko arauak ezartzen dituen, hondakinei buruzko 2008/98/CE zuzentarauarekin bat etorriz.
- Batzordearen 2020ko abenduaren 18ko 2021/19 Egikaritze Erabakia (EB), berrerabilpenari buruzko datuak jakinarazteko metodologia bateratua eta erabili beharreko formatua ezartzen dituen, hondakinei buruzko 2008/98/CE zuzentarauarekin bat etorriz.
- Batzordearen COM(2022) 141 azken jakinarazpena: Ehun-gaien kudeaketa zirkularrerako eta jasangarritasunerako Europako estrategia

2.3 Hondakinen kudeaketari buruzko esparru estatala

- Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzen dituen apirilaren 8ko 7/2022 Legea, hondakinen eta lurzoru kutsatuen kudeaketarako esparru juridikoa ezartzen duena eta ekonomia zirkularra eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzen dituen.
- Estatuaren barruan hondakinen garraioa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua.
- Espainia Zirkularra 2030, Espainiako Ekonomia Zirkularraren Estrategia
- Hondakin-kudeaketarako esparru estatala 2024-2035.

2.4 Hondakinen kudeaketari buruzko esparru autonomikoa

- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea, hiri-hondakinak kudeatzeko oinarri orokorrak eta eskumenak ezartzen dituen.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030.
- Euskadiko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko 2030eko plana.

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana ibilbide-orri bat da, eta helburu du hondakinak kudeatzeko eredu ekonomia zirkularraren oinarriekin bat datorren sistema jasangarri eta eraginkorrago bilakatzea. Azpimarratu behar da planak Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorraren edukiak modu esplizituan aitortzen eta onartzen dituela eta horiekin lerrokatzen dela, baita azpiegituren beharrak hondakin-tipologiaren arabera aztertzeari dagokionean ere.

Gainera, hondakinak kudeatzeko instalazioak etorkizunean garatzeko plangintzaren esparrua den heinean, planak hondakinak kudeatzeko instalazio berriak ezartzean kontuan hartu beharreko ingurumen-printzipioak eta diseinu-irizpideak zehazten ditu, eta ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak minimizatu.

Planari jarraikiz, irizpide hauek hartu behar dira aintzat, hondakinak kudeatzeko instalazio berriak ezartzean:

Instalazioak kokatzeko irizpideak

Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak instalatzeari dagokionean, zenbait zona desegokiak edo baztertu beharrekoak dira. Hona hemen:

- Parke naturalak.
- Biotopo babestuak.
- Zuhaitz bereziak.
- Europako Natura 2000 Sarean sartuta dauden tokiak: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
- Izapidetzen ari diren naturagune babestuak (Natur Baliabideak Antolatzeko Plan onetsia abiatzeko agindua dutenak).
- Ramsar hezeguneak eta EAEko Eremu Hezeen Lurralde Plan Sektorialaren II. taldean sartuta dauden hezeguneak, baita plan hidrologikoek babestutako guneetako beste hezegune batzuk ere.
- Urdaibaiko biosferaren erreserba, erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planean zehaztutakoaren arabera hirigintza-plangintzak arautzekoak diren zonak izan ezik.
- Txingudiko Plan Bereziak antolatutako eremua.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren Babes Zorrotz Bereziko eta Babes Bateragarri Bereziko kategoriak.
- Lurralde Plan Partzialek (LPP) eta udal-plangintzak, bere interes naturalistiko handiagatik, babes bereziko eremutzat sailkatutako eremuak.
- Onetsitako kudeaketa-planak dituzten flora edo fauna espezieak banatzeko interes bereziko guneak.
- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako espezieetako flora lehengoratzeko planek ukitutako guneak.

Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko Mugapen Hidrografikoen Plan Hidrologikoen eremu babestuen erregistroko hiri-hornidurarako bilketen babes-perimetroan sartutako guneak.

- Babes berezia eta ertaina duten ondasun kulturalak; babes berezi eta ertaineko ondasun kultural gisa babesteko proposamena duten elementuak (Euskal Ondare Kulturalaren maiatzaren 9ko 6/2019 Legea) eta babes berezi edo ertaineko ondasun kultural gisa babesteko proposamena duten elementuak. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehazten diren funtzio anitzeko natura-intereseko espazioak.
- Interes geologikoko tokiak eta geoparkea.
- Nekazaritza eta basogintzako LPSaren balio estrategiko handiko lurzorua.

- Arroko Plan Hidrologikoen eta Ibai eta Erreketako LPSaren kartografiaren arabera urak har ditzakeen eremuak.
- Zerrendatutako kultura-ondarearen elementuak.
- Interes komunitarioko habitatak dituzten eremuak.
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEren kutsadura akustikoari buruzkoak, g) tipologiarekin sailkatutako eremu akustikoak.

Hondakinak kudeatzeko instalazioen kokapenerako, lurzoru antropizatuen berrerabilpena sustatu eta lehenetsiko da, lurzoru naturalak edo urbanizatu gabeak artifizializatu aurretik. Arrunki, erabilpenik gabeko industria-eremuak eta inbentarioaren arabera kutsatuta egon daitezkeen eremuak lehenetsiko dira, betiere erabilera bateragarriak ezartzen badira eta garraio- eta zerbitzu-mailan konexio onak badituzte.

Ahal dela, haien abiapuntutik eta helmugatik hurbil kokatuko dira.

Instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionamendua barne

Hondakinak kudeatzeko instalazioen proiektuak egiteko, kontuan hartu beharko dira eskuragarri dauden teknikarik onenak, hau da, baldintza tekniko eta ekonomiko bideragarrietan, gutxien kutsatzen duten teknologiak.

Instalatzea aurreikusten den prozesu teknologikoak, ahal den neurrian, Hondakin eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan (hondakin eta lurzoru kutsatuen lege-proiektua) jasotako hondakin kudeaketa-hierarkia bete beharkodu.

Denbora-garapenari dagokionez, susta daitezkeen instalazioek kontuan hartu beharko dituzte egungo EAEko eskaria zein aurreikus daitekeen eskaria, baita tratatu nahi duten hondakin-korrontearekin lotutako egungo zein etorkizuneko lege-betebeharrak ere. Izan ere, hondakin-mota batzuk denbora-horizonte zehatzak dituzten xede espezifikoek baldintzatzen dituzte.

Ez da zabortegira hondakin gehiago botatzeko baimenik emango, Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren azpiegituri buruzko kapituluaren ezarritakoez haratago.

Ahal den neurrian, jarduketa berriak energia-iturri berriztagarriak ustiatzeko beharrezko azpiegiturez hornituko dira. Beharrezko eraikuntza-teknikak eta materialak ezarriko dira, azpiegiturak eta instalazioak paisaian integratzea errazte aldera.

Aukera desberdinak erkatzen dituzten ingurumen-azterketetan, honako ezaugarri hauek dituzten instalazioak lehenetsiko dira: balorizazio-modu berriak dakartenak edo jada ezarritako balorizazio-prozesuen dibertsifikazioa areagotzen dituztenak; lehendik dauden balorizazio-prozesuetan hobekuntza teknologikoa dakartenak; instalatutako balorizazio-ahalmena handitzen dutenak, instalazioek ez dutenean hondakin-kudeaketaren korronteetarako beharrezkoa den edukiera hornitzeko

gaitasunik; mugitzeko beharra murriztea, eta, beraz, osasunean eta ingurumenean inpaktu txikiagoak eragitea. Hori guztia logistika-azterketa batekin arrazoituko da.

Hondakinak kudeatzeko instalazio berriek bermatu egingo dute etengabeko ur-hornidura nahikoa dutela, ahal dela, hornidura-sare publikorako konexioaren bitartez.

Beharrezko neurriak hartuko dira lurzorua babesteko, hura kutsa dezaketen jardueretatik; edonola ere, lurzorua babesteari buruzko araudi aplikagarrian ezarritakoa bete beharko da.

Beharrezko neurriak hartuko dira kalitate atmosferikoa babesteko; nolanahi ere, indarreko araudian ezarritakoa bete beharko da.

Instalazio berriek isurketa-foku akustikoei aplikatu ahal zaizkien gehieneko balioak bete beharko dituzte; nolanahi ere, kutsadura akustikoari buruzko araudi aplikagarria bete beharko da.

2.5 Esparru forala: Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko estrategia

Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala, uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren bide onartutakoa eta apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatutakoa (agiri honetan bigarrenez aldatuko dena).

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra 2019-2030 Gipuzkoako Foru Aldundiaren epe luzerako estrategia bat da, hiri-hondakinak ikuspegi integral eta jasangarri baten eta ekonomia zirkularraren printzipioen arabera jorratzeko. 6/2019 Foru Arauaren bidez onartu zen, eta prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena lehenesten dituen kudeaketa-eredua finkatzea du xede, isurketak pixkanaka murrizteko eta hondakinak baliabide gisa balioan jartzeko.

Planak hainbat neurri biltzen ditu: azpiegituren eta gaikako bilketa-zerbitzuen hobekuntzatik hasita, berrikuntza teknologikoa eta ingurumen-hezkuntza sustatzeraino. Horrez gain, jarraipen eta ebaluaziorako tresnak biltzen ditu, proposatutako jarduerak eraginkorrak direla eta araudiaren eta testuinguruaren aldaketetara egokitzen direla bermatzeko.

Illo horretatik, planak 2019-2030 epealdian sortutako hiri-hondakinaren tratamendurako beharrak aztertzen ditu, eta lau jarduera-programa zehaztu:

- Prebentzio-programa
- Kudeaketa-programa
- Ezabapena optimizatzeko programa
- Behaketa-programa

Kudeaketa-programaren barruan, planak berrerabilpena prestatzeko programa jasotzen du, mota horretako jarduerak kudeaketa-hierarkiaren bigarren fasean baitaude, hondakinak murrizteko estrategien atzetik. Programaren helburua egiaztapen-, garbiketa- eta konponketa-lanak sustatzea da. Horretarako, hondakin bihurtutako produktuak edo haien osagaiak berrerabiltzeko prestatzen dira, aurretik

beste eraldaketarkegin gabe, batik bat tamaina handiko hondakinak, ehun-gaiaketa TEEHak.

GHHKPO 2019-2030aren berrerabilpena prestatzeko programan jasotako bost jardueretako bat da PREUT-4 «Berrerabilpena Prestatzeko Zentroaren (BPZ) beharrak aztertzea». Beharrezko azpiegiturak aztertzen dituen atalean, planak azpimarratzen du negozio-eredua eta etorkizuneko lankidetza publiko-pribatuaren eszenatoki posibleak analizatu behar direla. Halaber, planteatzen du azpiegitura horiek garatzeko bi aukera aztertuko direla: prestaketa-zentro zentralizaturik ez eraikitzea (1. aukera) eta berrerabiltzeko prestaketa-zentro zentralizatua eraikitzea (2. aukera). Planak ere aipatzen du ezaugarri horietako azpiegitura bat gauzatu ahal izateko, Azpiegituren LP Sa aldatu behar dela.

Azken finean, indarreko plangintzak konponketa eta berrerabilpena lehenesten ditu, birziklapenaren eta balorizazioaren orde, eta, ildo horretatik, BPZ bat martxan jartzea Gipuzkoako hondakin-kudeaketan aurrerapausoa izango litzateke.

3 Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak

Gipuzkoako Hiri Hondakin LPSaren 2018ko aldaketak altako sarean hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegituren kokapena finkatu zuen. Hona hemen aldaketaren ostean ezarritako azpiegiturak, laburbilduta:

- Tratamendu mekaniko-biologikoa, Donostialdea-Bidasoa eremuko energia-balorizaziorako instalazioa (GIG-1).
- Donostialdea-Bidasoa eremuan biometanizaziorako instalazioa eta zepak heltzeko instalazioa: (GIG-2)
- Debagoienako konpost-instalazioa.
- San Markos ontziak bereizteko instalazioa.
- Sasietako ontziak bereizteko instalazioa.
- Sasietako transferentzia-estazioa.
- Debabarrenako transferentzia-estazioa.
- Urola Kostako, Urola Erdiko eta Sasietako zabortegeak, egun itxita daudenak, eta, beraz, itxi osteko kontrol- eta zaintza-fasean.

2018ko azpiegituren mapa San Markoseko transferentzia-estazioarekin, Arasoko truke-plataformarekin eta Urola Erdiko konpost instalazioarekin osatu zen. Lehenengo biak behin-behinekoak ziren, eta Gipuzkoako Ingurumeneko Gunea abiarazi arte egon behar zuten martxan. Instalazioak hondakinak lekualdatzeko erabiltzeari utzi zitzaion, elkarrengandik hurbil zeudelako, eta, beraz, ez zutelako zentzurik. Bestalde, Urola Erdiko konpost planta eten egin zen eta gaur egun beste helburu batzuetarako erabiltzen da.

Aldaketa honen bidez, egonkortutako azpiegitura-multzoari ehun-gaien berrerabilpena prestatzeko zentroa (BPZ) gehitzea proposatu da.

4 Jarduera-eremua. LPSaren aldaketaren irismena

Aldaketa honek Berrerabilpena Prestatzeko Zentroari baizik ez dio eragiten. Instalazio horrek Gipuzkoako hiri-hondakinen gaikako bilketatik datozen ehun-gaiak tratatuko ditu.

Aldaketak ez du eraginik izango 2009ko uztailleko LPSean finkatutako goiko sareko azpiegituretan, ezta haren 2018ko apirilaren aldaketan ere.

Lurralde-eremuari dagokionez, LPSaren aldaketa San Marko Mankomunitatean ardaztuko da, kudeaketa-azpiegitura berria kokatuko den tokian, hain zuzen.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren LPSaren bigarren aldaketaren helburu nagusia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hiri-hondakinak kudeatzeko interes orokorreko azpiegitura publikoen kokapenaren errealitatea eta aurreikuspena eguneratzea da, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra 2019-2030aren arabera eta Berrerabilpena Prestatzeko Zentroa ezartzeko beharrari dagokionez.

Honela, Hondakinen Legearen 26. artikulua zehaztutako helburuak beteko dira ehun-gaien berrerabilpena prestatzeko dagokionez: 2025erako, birziklatzen eta berrerabiltzeko prestatzen diren udal-hondakinen tasa gutxienez %55era iristea, eta ehuneko horretatik, %5 behintzat berrerabiltzeko prestatzea. 2030ean, birziklatzen eta berrerabiltzeko prestatzen diren tasa %60ra igoko da (horren %10 gutxienez, berrerabiltzeko prestatzen diren hondakinak izango dira), eta 2035ean, berriz, %65era (horren %15 gutxienez, berrerabiltzeko prestatzen diren hondakinak izango dira).

Egiaz, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra 2019-2030aren helburu estrategikorik anbiziotsuena da birziklatzen eta berrerabiltzeko prestatzen diren tasa %70era igotzea 2030erako.

2023ko GHKPO 2019-2030aren Jarraipen Dokumentuaren arabera, urte hartan Gipuzkoako birziklapen-tasa %53,9 izan zen, baina udal-hondakinen %0,96 baino ez zen prestatu berrerabiltzeko.

Orobat, 7/2022 Legeak xedatzen du 2024ko abenduaren 31 baino lehen ehun-gaien hondakinak bereizita biltzeko sistema ezarri behar dela, eta 2025ean, berriz, ehun-gaien ekoizleei erantzukizun-arau hedatuak eduki. Hala, legeak ehun-gaien berrerabilpena modu eraginkorrean prestatzeko ibilbide-orria zehaztu zuen. Lurraldeko ehun-gaien kudeaketa Berrerabilpena Prestatzeko Zentro batean zentralizatzeko hondakinak berrerabiltzeko jarduenak eraginkortasunez gauzatzearen ikuspegia indartzen du, kostuak murriztu eta baliabideak optimizatzen dituelako.

Testuinguru horren baitan, aldaketa helburu zehatz hauetan oinarritzen da:

- Ehun-gaien Berrerabilpena Prestatzeko Zentroa ezartzeko kokapen egokiena aukeratzea, irizpide teknikoak, lurraldekoak, hirigintzakoak, ingurumenekoak, sozialak, politikoak eta ekonomikoak kontuan izanik.

- Planaren eta gainerako lurralde-, sektore- eta ingurumen-plangintzako baliabideen arteko koordinazioa eta koherentzia bermatzea.

Horrenbestez, azpiegitura berria LSParen esparru materialean txertatu da.

5 Aldatzeko beharrak. Aurreikusitako jarduerak.

Aldaketaren helburua ehun-gaien berrerabilpena prestatzeko azpiegitura berria txertatzea da. BPZak Gipuzkoako Lurralde Historikoko gaikako bilketaren ehun-gaien hondakinak jasoko ditu, espaloietan dauden borondatezko ekarpeneko edukiontzietatik eta toki pribatuetan kokatutako beste zona batzuetatik (enpresak, merkataritza-guneak) etorritakoak. Edonola ere, jasotako ehun-gaien hondakinak udal-hondakintzat joko dira (herritarrek kontsumitu osteko ehun-gaia), eta ez kontsumitu aurreko ehun-gaitzat (dendetako izakinak, fabrikako jantzi akastunak..) edo jatorri industrialeko ehun-gaien hondakintzat (oihalkiak, ebakinak...).

Gipuzkoako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko behatokiak emandako lurraldeko hiri-hondakinen bilketa-datuen arabera, 2024an edukiontzietako eta garbiguneetako gaikako bilketaren bidez 3.320 tona ehun-gai metatu ziren.

Aurreikusi da Gipuzkoako instalazioetan hondakin-kopuru hau sailkatu ahal izango dela:

- 2026. urtea: 3.400 tona
- 2030. urtea: 4.500 tona

Illo horretatik, proposatu da 2030eko urterako aurreikusitako kopuruak hartzea aintzat, instalazio berria diseinatzeko.

BPZaren erabilera nagusia ehun-gaien hondakinak kudeatzea izango da, eta, lehenik, berrerabil daitezkeen ehun-gaiak bereiziko ditu. Berrerabili ezin daitezkeenak konposizioaren eta kolorearen arabera sailkatuko dira, eta birziklatze-prozesuetara bidaltzeko egokitu.

Halaber, BPZa merkataritzararako erabil daiteke, eta berreskuratutako gauzak salmenta-gune baten bitartez kontsumo-zikloan berriz sartu.

Azkenik, erabilera orokorreko guneak edukitzea baloratu da, hala nola bulegoak, erabilera anitzeko gelak eta jateko lekua.

Ondoren, kokapen egokiena aukeratzeko lehen baldintzatzaileak, kokaleku posibleak eta hartutako erabakiaren justifikazioa jaso dira.

5.1 Kokalekua hautatzeko abiapuntu diren baldintzatzaileak

5.1.1 Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren (otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua), eta harrezkero, LAGak aldatzeko hainbat prozesu hasi dira.

Beranduago, Gobernu Kontseiluaren 2015eko uztailaren 17ko bileran, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesura hasia erabaki zen.

Azkenik, 2019ko irailaren 24ko EHAA EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartu zituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua argitaratu zen.

Lurralde-estrategia berriaren oinarriak bat datoz Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako «Garapen Jasangarriko 2030 Agendan», Quito onartutako «Hiri Agenda Berriko (HABITAT III)» 17 Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) eta «2020ko Europako Batasuneko Lurralde Agenda» edo «Amsterdamgo Ituna» delakoan zehaztutako lurralde-erronkekin. Hala, ikuspegi jasangarria, inklusiboa, bizia, adimentsua, orekatua, erlazionatua eta partizipatiboa dituen lurralde edo lurralde-antolamenduko politika berri bat aurreikusi da.

Aplikaziozko arauen barruan, «Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako gidalerroak» izeneko II. kapituluaren 3. artikulua ingurune fisikoa antolatzeke gidalerroak biltzen ditu, eta lurzoru urbanizaezinean onartzen diren erabilerak eta jarduerak arautu. Horretarako, 6 kategoria ezartzen ditu, EAEko lurzoruaren antolamendurako:

- Babes berezia
- Ingurumenaren hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabalekoa
- Mendiko larreak
- Gainazaleko Uren Babesa

Baldintzatzaile gainjarriek ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-araubidea mugatzen edo baldintzatzen dute:

- Arrisku naturalari eta klima-alaketari buruzkoak:
 - Akuiferoen urrakortasuna
 - Arrisku geologikoak
 - Urak har ditzakeen eremuak
 - Klima-alaketari lotutako arriskuak
- Azpiegitura berdeari buruzkoak:
 - Beren ingurune-balioengatik babestutako gunek eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.
 - Korridore ekologikoak eta interes naturala duten funtzio anitzeko beste espazio batzuk

Ingurune fisikoko erabilerak bost bloketan sailkatzen dira:

- Ingurumenaren Babesa
- Aisialdia eta zabalaldia
- Lehen sektoreko baliabideen ustiapena
- Azpiegiturak: horren barruan sartzen dira hondakin solidoak biltegitratzeko espazioak.
- Eraikuntza Erabilerak

Ingurune fisikoaren antolamenduko matrizea ezartzen du. Matrize horrek antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak hainbat erabilerarekin gurutzatzen ditu, eta honako erabilera-kategoria hauek sortu:

- 1: erabilera egokia
- 2: erabilera onargarria
- 3: erabilera debekatua

Ingurune fisikoaren erabilerari dagokiola, BPZa A motako instalazio ez-lineala da. Aipatu behar da, kokalekuak hautatzean, lursailaren erabilera muga edo baldintza dezakeen ingurumen-ezaugarriak ez duten lekuak aukeratu direla.

5.1.2 Lurralde Plan Sektorialak

EAEan behin betiko onartutako 14 LPSetatik, honako hauek irizpide garrantzitsuak izan ditzakete, BPZa Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren LPSan sartzearekin lotutako ingurumen-alderdiei eragiten dietelako:

- EAEko nekazaritza eta basozaintzako LPS
- EAEko ibaiak eta errekek antolatzen dituzten LPS
- EAEko hezeguneen LPS
- EAEko itsasertza babestu eta antolatzen dituzten LPS

Ondorioz, BPZ garatzean, zehaztapen hauek aintzat hartu behar dira:

EAEko ibaiak eta errekek antolatzen dituzten LPS

Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen dituzten Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) onartu zuen. Bestalde, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak LPSaren (Isurialde kantauriarra eta mediterraneo) aldaketa behin betiko onartu zuen.

LPSaren araudiak atzerapen zehatzak ezartzen ditu (eraikuntzan, hirigintzan edo bestelako esku-hartzeetan), ibilguen ingurumenaren, hirigintzaren eta osagai hidraulikoen arabera zehaztutako kategoriei jarraikiz.

Hondakinak kudeatzeko azpiegituren kokalekuak hautatzean, LPSak eta haren aldaketak ezarritako antolamendu-arauak hartuko dira aintzat.

Era berean, eta EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen dituzten Lurraldearen Arloko Planaren E.1 atalean jasotako uholde-arriskuari dagokionez, hondakinak kudeatzeko

azpiegiturak lurraldean kokatzean, irizpidetzat hartuko da 500 urteko errepikatze-denboran uholdetu daitezkeen eremuen mugetatik kanpo ezartzea.

Hezeguneen LPS

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez (EHAA 222 zk., 2004-11-19), behin betiko onartu zen EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana. Dekretuaren indarraldian zehar, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Plangintza Zuzendaritzak ohartarazi zuen aipatutako Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean hainbat aldaketa egin behar zirela, eta EHAA Dekretua argitaratzean ikusi ez ziren akats materialak zuzendu. Urriaren 30eko 231/2012 Dekretuak jasotzen ditu zuzenketa horiek. Dekretu horren bidez, EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen dekretua aldatu zen.

Hezeguneen LPSetatik eratorritako zehaztapenak eta jarduerak betetzea izango da azpiegiturak non jarri erabakitzeke lehen irizpidea. Beraz, aukeretako bat ere ez da plan horren antolamendu-eremuan kokatuko, ezta Ramsar hitzarmenak jasotzen duen gipuzkoar hezegune bakarrean ere (hots, Txingudin).

Nekazaritza eta basozaintzako LPS

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak behin betiko onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Plan horrek Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren LPSaren xedearekin uztar litezkeen zenbait helburu ezartzen ditu. Besteak beste, planak aipatzen du jarduketatresnak eta baliabide baliagarriak proposatu behar direla, sektorea eta haren bitartekoak tokian bertan eta sektorearen jarduerarekin batera gauza litezkeen nekazaritzaz kanpoko erabileretatik babesteko (bereziki, bizitegi eta industriarako erabileretatik eta azpiegituretatik).

LPSak honela sailkatzen ditu hirikoak ez diren lurzoruk:

- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa (Estrategikoa eta Trantsizioko paisaia)
- Mendia (Basoa - Mendi Barbana, Basoa, Mendi Larreak eta Mendi Larreak-Harkaitzak)
- Ingurumenaren hobekuntza
- Gainazaleko uren babesa

LPSak lurzoru moten erabilerak honela sailkatzen ditu:

- Egokia
- Onargarria
- Debekatua

Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak A motako zerbitzu-instalazio teknikitzat jotzen dira, eta taula honetan ikus daiteke LPSak nola arautzen dituen:

ERABILERAK	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK								
	NEKAZARITZAKO NAHIZ ABELTZAINZAKO ETA LANDAZABALEKOA			MENDIA				INGURUMENAREN HOBEKUNTZA	GAINAZALEKO UREN BABESA
	Estrategikoa	Trantsizioko Paisaia	Basoa - Mendi Barbana	Basoa	Mendi Larreak	Mendi Larreak - Harkaitzak			
A motako zerbitzuetako instalazio teknikoak	2a**	3a**	2a	2a	3a	3	3	3	-
* : LPS honetan zehaztasunak dituzten edo foru-antolamenduak zehaztu beharreko nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak ** : Balio Estrategiko Handia kategorian, Arabako Erdialdeko eta Guardiako eremu funtzioaletan (2a) EAEko gainerako lekuetan (3a) dutena ez bezalako araubidea dute nekazaritza eta basozaintza erabilerak. - : Plangintzako beste agiri batzuetan arautu beharreko erabilerak									

1. irudia. 1. taula. Erabilera-matrizea. (Iturria: EAEren nekazaritza eta basozaintzako LPS)

2: Onargarria: Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jarduketa-tresnak»).

3: Erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan. Salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea, sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jarduketa-tresnak»).

3: Debekatua

BPZa ezartzeko proposamenen artean, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan ezarritakoari kontra egiten ez dioten eta onargarriak diren kokalekuak hautatu dira beti.

EAEko itsasertza babestu eta antolatze LPS

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuak EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze LPSaren Arloko Plana onartu zuen.

Planak Kostaldean Legeari atxikitako zonaldea hartzen du antolamendu-eremutzat (500 metro zabal den zerrenda, itsasertzeko barruko mugatik neurtuta). Hala, antolamendu-kategoriak garatzen dituen zonifikazio bat ezartzen du, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehaztutako lurzoru-erabilerak eta jarduerak zehaztu.

Horri dagokiola, aipatu behar da ez dela bestelako kokalekurik kontuan hartu, plan honetako antolamendu-eremuaren barnean dauden hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak ezartzeko.

5.1.3 Ustezko gune arkeologikoak eta estazio megalitikoak. Euskal Kultura Ondarea

BPZaren ezarpenean, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako oinarriko xedapenak bete behar dira. Nolanahi ere, gune horiei zuzenean eragitea ekidin behar da, eta aurreikusitako obrak egikaritzean, kultur ondarea mantendu.

5.2 Aintzat hartutako aukerak eta hautatutako irtenbidea

Eredu kontzeptualaren ikuspegitik, eta GHKPO 2019-2030aren agindua betez, 2020an Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldean berrerabiltzeko prestatzeko beharren ebaluazioa egin zuen ("Lurraldeak berrerabiltzeko prestatketa-zentro bat izateko beharren azterketa, berrerabilgarriak izan daitezkeen hondakinen tratamenduari estaldura emateko", 2020ko ekaina). Azterketa horrek egoeraren analisia eta etorkizunerako ekintza-ondorioak jasotzen zituen, bai hondakinen beheko sareko bai goiko sareko azpiegiturei dagokienez.

Azterketaren arabera, nahiz eta ehun-gaia bilketa-sistema zuzena izan, ondorengo kudeaketa oso mugatua da berrerabiltzeko prestatetari dagokionez. Halaber, dianostikoak zehaztu zuen berrerabiltzeko prestatketa-jardueraren eraginkortasuna handitzeko ikuspegi orokor eta zentralizatua behar dela, Lurralde osoari begira, eta kudeaketa-prozesu aurreratuekin. Beharrezko instalazioen kostu handiak eta berrerabiltzeko prestatketa eraginkorrako baterako behar den langile-kualifikazioak zentro bakar bat izatea eskatzen dute, Lurralde osoari modu operatibo eta eraginkorrean erantzuteko. Dokumentuan aztertutako aukeren laburpen zehatzagoa —egungo aukera, aukera plurizentrikoa, aukera monozentrikoa— eta proposatutako irtenbidearen justifikazioa [1. Aurrekariak eta xedea](#) atalean jasotzen dira, eta ondoren eskematizatuta dago.

Ehun-gaiak berrerabiltzeko prestatketa hobetzeko baldintzatzaileak	Egungo ereduak			Aukera plurizentrikoa			Aukera monozentrikoa		
	Tekniko-operatiboa	Ingurume nekoa	Ekonomik o-soziala	Tekniko-operatiboa	Ingurume nekoa	Ekonomik o-soziala	Tekniko-operatiboa	Ingurume nekoa	Ekonomik o-soziala
Bildutako materialaren kudeaketa	0	0	+	+	+	+	+	+	+
Desegokien kudeaketa	-	-	0	+	0	0	+	+	+
Identifikazio, bereizketa eta konponketa prozesu aurreratuak, horiek kudeatzeko langile kualifikatuak barne	-	-	-	+	+	-	+	+	+
Salgai dauden berrerabiltzeko produktuen eskariaren kudeaketa	0	0	0	0	0	0	+	+	+

OHARRA: azterketak ez zituen baloratu ehunen behe-sareko bilketa prozesuetan egon zitezkeen aldaketak, berrerabiltzeko prestatetari begira egungo baliabideak egokiak direla ondorioztatu baitzuen

Legenda:

- Desegokia 0 Eragin esanguratsurik ez + Egokia

Beharren azterketaren arabera, ikuspegi funtzional, ingurumeneko, ekonomiko eta sozialetik irtenbiderik onena ehun-gaia kudeaketarako instalazio publiko zentralizatua zela. Horrenbestez, GHHKPO 2019-2030ak instalazio berri hori goi-sareko Azpiegituren LPSan eskatzen du, eta horixe da bigarren aldaketa honen helburua.

Beraz, dokumentu honetako alternatiben analisia BPZrako balizko kokapenen ebaluazioa eta hautatutako kokapenaren justifikazioa azaltzen ditu.

Kokapenak aukeratzean, premisa hauek hartu dira abiapuntutzat: herritarren grabitate-zentroak zein diren aurreikustea, eta, horrenbestez, lurraldearen barruan hondakinak non sortzen diren; zonaldea ongi komunikatuta egotea eta beste instalazio batzuekin sinergiak sortzeko aukera ematea, garraioaren kostua txikiagotzeko; eta herritarrei zerbitzu ematen zaiela ziurtatzea, baldintzatzaile urbanistikoa eta teknikoak, alderdi ekonomikoak eta epeak kontuan izanik.

Indarreko LPSan jasotako azpiegiturentzat aurreikusitako kokalekuak ere aintzat hartu dira, baita GHHKPO 2019-2030an jasotako helburuak ere (tratamendurako azpiegiturek bateratzea, hondakinak kudeaketa zentralizatzeko). Hori guztia dela eta, kokapen hauek aurrez hautatu dira:

5.2.1 0. aukera: Ez jardutea

0 aukerak jarduerarik ez burutzea aurreikusten du, eta, beraz, gaur egungo egoera mantentzea eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren bigarren aldaketak aurreikusitako Berrerabilpena Prestatzeko Zentroa (BPZ) ez ezartzea.

Gaur egun, Gipuzkoak birziklapenaren alorrean datu positiboak baditu ere, berrerabiltzeko prestatzen diren udal-hondakinak tasa GHHKPO 2019-2030ak eta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzen dituen 7/2022 Legeak ezarritako helburuen oso azpitik dago. Ez jarduteak egoera hori betikotuko luke, eta ekonomia zirkularren, prebentzioaren eta berrerabilpenaren arloko konpromiso arauemaileak eta estrategikoak betetzea zailagoa izango litzateke.

BPZrik eraikitzen ez bada, lurraldea ehun-hondakinak kudeatzeko azpiegitura eraginkorrik gabe geratuko da, GHHKPO 2019-2030en helburuetan eta konpromisoetan jasotzen

dena.

5.2.2 1. aukera: Lasarte-Donostialdea

Kokapena eta sarbideak

Lasarte-Donostialdea lursaila aldirietan dago, Donostiako eremu funtzionaleko hirigune nagusietatik hurbil. Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko kokapen

estrategikoa du, eskualdeko bide-sare nagusiarekin ondo konektatuta baitago. Hala ere, lursailera zuzenean sartu ahal izateko, bide nagusitik ateratzen den 1 km inguruko bidea eraiki eta egokitu behar da. Hortaz, herri-lanen, denboraren eta kostuen aldetik esku-hartze nabarmena izango da.



2. irudia. 1. aukeraren kokapena. Lasarte-Donostialdea. (Iturria: norberak egindakoa).

Kokalekuaren egokitasuna

Lursailakazalera nahikoa du (7.500 m²), instalazioa ezarri eta etorkizunean handitzeko. Alabaina, urbanizatu eta berdindu gabeko lursaila da, eta, ondorioz, lur-mugimenduak eta lursaila egokitzeko eta azpiegituraren egonkortasuna bermatzeko lanak egin beharko dira. Gainera, konexio eta kanalizazio berriak egikaritu behar dira, oinarritzko zerbitzuen harguneak falta direlako (ura, argindarra, saneamendua).

Ingurunearen azterketa

Aukeratutako gunean, Kretazeo Berantiarreko flyschen bereizgarri diren tuparri eta kareharrizko geruzak txandatzeko dira, baina ez da interes bereziko puntu edo ibilbide geologikorik identifikatu. Ekoizpenari eta agroturari dagokionez, balio txikiko lurrak dira, eta, beraz, nekazaritzarako aprobetxamendua mugatua da. Hidrologiaren ikuspegitik, lurpeko akuiferoen zaurgarritasuna txikia da, eta lurzorua ez da oso iragazkorra. Horrek lurpeko urei kalte egiteko arriskua murrizten du.

Bioaniztasunari dagokionez, proposatu den azalerak 6510. interes komunitarioko habitata hartzen du barne; hots: malda txikia duten landazabaleko sega-belardi atlantikoak, lehentasunik gabeko gunea. Zonaldean udako hegaztien aniztasun handia dagoen arren, ez da zuzenean eragindako eremuan babestutako espezie zehatzik eta babestutako naturagunerik identifikatu. Ondare arkeologiko garrantzitsurik ere ez da aurkitu.

Urumeako Unitate Hidrologikoan kokatuta dago, Arpita ubidearen goialdean, eta ez du uholdeak jasateko arriskurik.

Sortutako inpaktuak

Eraikuntza-fasean zehar, inpaktuak bereziki esanguratsuak izango dira, lursaila berdindu behar delako, eta sarbidea egokitu. Indusketek hondakin-bolumen izugarriak sortuko dituzte, eta horrek lurzorua egitura alda dezake eta landare-estalkia ezabatu. Ondorioz, higadura-arriskua areagotu liteke, eta drainatze-sare naturala behin-behinean kalte liteke. Neurri prebentiboak eta zuzentzaileak ezarri beharko dira, makineria astunaren zirkulazioak, hautsa eta zarata eta tokiko landare eta faunari eragindako inpaktuak arintzeko. Instalazioa martxan egon bitartean, inpaktu hauek aurreikusi dira:

- Hondakinak eta produktuak eramaten dituzten ibilgailu astunen zirkulazioa areagotuko da. Ondorioz, tokiko bide-sareak zama osagarria eduki dezake, eta inguruko biztanle eta erabiltzaileentzat arazo bihur daiteke.
- Industriadariek duten inguruneetan, gehiago hauteman daitezke instalazioen jardueraren zarata eta ibilgailuen joan-etorria.

Bizitegi-eta nekazaritza-eremuetatik gertuegoteak gizartean kezkasor lezake, zarata eta trafiko astuna areagotuko direlako, batik bat instalazioa eraiki bitartean.

5.2.3 2. aukera: Eskuzaitzeta

Kokapena eta sarbideak

Eskuzaitzeta lursaila izen bereko industrialdean dago, Zubietako auzoan, Donostian. Eremu bereziki estrategikoa da, egonkortutako industrialde batean kokatuta eta Gipuzkoako garraio-ardatz nagusiekin ondo konektatuta baitago. Hortaz, errazagoa da hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuak sartzea eta sortutako produktuak ateratzea. Aukera honen abantaila nagusietako bat da zonaldeak badituela sarbide urbanizatuak martxan. Horri esker, ez litzateke obra osagarriarik egin beharko, kamioi eta makina astunak sartu eta irten ahal izateko.



3. irudia. 2. aukeraren kokapena. Eskuzaitzeta. (Iturria: norberak egindakoa).

Kokalekuaren egokitasuna

Lursailak azalera nahikoa du (7.500 m²), instalazioa eraikitzeko eta etorkizunean handitzeko, eta horrek malgutasuna ematen du, proiektua zabaltzeko. Industria-erabilerarako eta hondakin-kudeaketarako lurzorua da, eta, beraz, indarreko hirigintza- eta ingurumen-araudia guztiz betetzen du. Beste abantaila nabarmen bat da oinarritzko zerbitzuen hargune guztiak egikarituta eta erabilgarri daudelajada (ura, argindarra, saneamendua, telekomunikazioak). Horrek izapide administratiboak azkartuko ditu, eta aurreikusi gabeko atzerapenak eta gailakostuak murriztu, ez delako kanalizazio eta azpiegitura berririk egin behar.

Halaber, industria-ingurunean txertatzeak herritarrek proiektua begi onez hartzea errazten du, instalazioaren jarduera bertako beste erabilerekin bateragarria delako, eta bizitegi-erabilerekin edo arazotsuak izan daitezkeen bestelako erabilerekin egon litezkeen gatazkak minimizatzen direlako.

Ingurunearen azterketa

Eskuzaitzetako lursaila Kretazeo Goiztiarreko hareharriekin nahastutako karedun limonita beltzez eratuta dago, «Estenaga Mendiko Terraza» ezagunen barruan. Interes Geologikoko Eremua da lurraldearen baitan, hauskortasun eta balio zientifiko eta didaktiko handia duten alubioi-terrazak dituelako, nahiz eta bertara iristea oso erraza ez izan.

Lurzorua kalitateari dagokionez, instalazioa industrialdearen barruan kokatzea aurreikusita dago, ekoizpenaren eta nekazaritzaren ikuspegitik balio txikikoa den eta nekazaritza-aprobetxamendurako interesik ez duen gun batean.

Alderdi hidrologikoari dagokionez, ez dago ibilgu garrantzitsurik, Oria ibaiaren arroko hiru ubide txiki besterik ez, eta ez da iturbururik identifikatu. Inguruko materialek iragazkortasun txikia dute, eta lurpeko akuiferoek, berriz, zaurgarritasun-maila oso baxua. Hortaz, baliabide hidrikoei kalte egiteko arriskua txikiagoa da.

Atxikipen-eremuko landarediari dagokionez, larreak eta zuhaixka eta sastrakadiak dira nagusi zonalari lauenetan, eta hostozabalen baso mistoak, berriz, malda handiko eremuetan eta erreketako ibarbideetan. Faunari dagokionez, zonaldean Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoko bi espezie detektatu dira: lepitzulia, Zubietako futbol-zelaiaren inguruko basoetan dagoena, eta euli-txori beltza, hainbat habitateko zuhaiztitan aurki daitekeen udako espezie migratzailea dena.

Jarduera-eremuan naturagune babesturik ez badago ere, inguruetan badira Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako zuhaizti babestuak, baina aurreikusitako obrek ez diete eragiten.

Jatorrian kalitate handiko paisaia zela esan liteke, sastrakadi, baso eta ibilguen konbinazioarengatik; baina balioa galdu zuen, industrialdea eraikitzean egindako hirigintza-garapenaren eta Hondakinak Kudeatzeko Zentroaren ondorioz. Azkenik, eremuan ez da arkeologia-ondararik identifikatu, eta hainbat erreka dauden arren, ez dago uholde-arriskurik, ibilgu txikiak direlako.

Sortutako inpaktuak

Eraikuntzan zehar, kalte gutxi eragingo dira. Izan ere, lursaila berdinduta eta urbanizatuta dago jada, eta, horrenbestez, ez da lur-mugimendu handirik egingo eta obra-hondakin gutxiago sortuko dira. Makinek hautsa, zarata eta trafikoa sortuko dituzte, noizbehinka eta denbora laburrez. Alabaina, hori erraz kudea liteke, eraikuntza-jardunbide onekin eta ohiko prebentzio-neurriekin (ureztatzea, ordutegiak, seinaleak). Instalazioa martxan egon bitartean, inpaktu hauek aurreikusi dira:

- Ibilgailu astunen trafikoa handituko da. Alabaina, industrialdearen ohiko dinamikarekin nahastuko denez, ez da jarduera nabarmen areagotuko, lehendik zegoenarekin konparatuta.
- Eguneroko jardunak eta makinek zarata sortuko dute, baina industria-inguruneetarako onartutako mailen barruan mantenduko da.

Egonkortutako industria-eremu batean kokatuko litzateke eta ez dago etxebizitzarik handik gertu; hortaz, inpaktu soziala hutsala izango litzateke. Instalazioa dagoeneko industrial den zona batean txertatuko denez, errazagoa da gizarteak onartzea, eta bizilagunak kexatzeko eta ingurumenaren gaineko aldarrikapenak egiteko aukera ere, txikiagoa.

5.2.4 3. aukera: Loistegikogaina

Kokapena eta sarbideak

Lursaila aldirietan dago, eskualdeko komunikazio-bide eta jarduera-gune nagusietatik hurbil. Lursailera sartzeko, bide nagusitik 600 metro inguruko bidea

egokitu beharko litzateke. Beraz, obra zehatzak egikaritu beharko litzateke, ibilgailu astunen joan-etorria errazteko eta instalazioaren funtzionamendu logistikoa ziurtatzeko.



4. irudia. 3. aukeraren kokapena. Loistegikogaina. (Iturria: norberak egindakoa).

Kokalekuaren egokitasuna

Lursailakazalera nahikoa du (7.500m^2), instalazioa ezarri eta etorkizunean handitzeko. Lursaila egokitzeko lanak egin behar dira, ordea, eta lurak mugitu eta berdindu, proiektuaren baldintza teknikoetara egokitzeko. Horrez gain, oinarritzko zerbitzuen harguneak (ura, argindarra, saneamendua) ezarri behar dira 1 km inguruko eremuan, lursailean ez baitago halakorik.

Ingurunearen azterketa

Lursailean, Kretazeo Berantiarreko flyschen bereizgarri diren tuparri eta kareharrizko geruzak txandatzek dira. Ez da interes geologikoko eremurik identifikatu, eta, beraz, alderdi horretatik ez dago eragin aipagarriarik. Instalazioa hartuko duten lurrek balio murrizta dute ekoizpenari eta nekazaritzari dagokienez, eta, horrenbestez, nekazaritzarako erabiltzeko aukera txikia da.

Ikuspegi hidrologikotik, Urumea ibaiaren arroko ubide txikiak baino ez daude, eta ez da iturbururik identifikatu. Flyscharen ezaugarri litologikoak direla-eta, akuiferoen zaurgarritasun-maila eta lurraren iragazkortasuna txikiak dira.

Landarediari dagokionez, mendi-hegaletan eta ibarretan basogintza-plantazioak eta hostozabalen baso mistoak tartekatzen dira, eta malda leunagoetan, berriz, sega-belardiak. Horrek guztiak nahiko ondo kontserbatutako landazabala eratzen du. Halaber, 6510. interes komunitarioko habitata hartzen du barne; hots: malda txikiko sega-belardi atlantikoak, lehentasunik gabeko gunea. Inguruetan intereseko

espezieak erregistratu dira, hala nola hegoaldeko zuhaitz-igela, lepitzulia, euli-txori beltza, zapelatz liztorjalea, miru gorria eta belea. Hala ere, jarduera-eremuaren barnean ez da espezie horietako bat ere identifikatu. Halaber, lursailean ez dago babestutako espazio naturalik, ezta flora eta faunaren elementu nabarmenik ere.

AP-8 errepidea gertu izan arren, kalitate handiko paisaia da. Aurreikusitako instalazioa izango litzateke bertako elementu antropogeno nagusia, eta horrek paisaiari kalte egingo lioke. Azkenik, eremuan ez da arkeologia-ondararik identifikatu, eta uholde-arrisku txikia dago, inguruneke errekek emari txikikoak direlako.

Laburbilduz, Loistegikogaina garrantzi geologiko eta hidriko txikiko ingurunea da, eta ez du ondararik eta babestutako naturagunerik. Aitzitik, paisaiaren balioa handia da, lehentasunezkoa ez den interes komunitarioko habitata barne hartzen du eta inguruetan intereseko espezieak daude. Horregatik guztiagatik, proiektua ingurumenean txertatzean arreta bereziz jardun behar da.

Sortutako inpaktuak

Kokaleku horretan egikaritzea erabakitzen bada, lursailak inpaktu handia jasoko luke, instalazioa eraiki bitartean. Izan ere, lur-mugimendu nabarmena egin behar da, gunea berdintzeko eta egokitzeko, eta horrek topografia aldatuko luke eta indusketa-hondakinak sortu. Gainera, 600 metroko sarbidea eta ura hornitzeko eta hustutzeko eta sare elektrikorako harguneak ezarri ahal izateko (1 km inguruko zonaldean), ingurunean esku hartu behar da. Hortaz, landarediari eta paisaiari behin-behinean eragingo zaie, eta hautsa eta zarata sortuko dira. Instalazioa martxan egon bitartean, inpaktu hauek aurreikusi dira:

- Paisaiaren kalitatea behin betiko murriztea (kalitate handitik, kalitate txiki-ertainera).
- Trafiko astuna areagotzea, hondakinak garraiatzeko.
- Zaratak eragindako eragozpenak, kontrolatuta eta legezko muga barruan bada ere.
- Baliabide hidrikoei kalte egiteko arrisku txikia, eta babestutako espezieetan eta ondarean inpakturik ez lursailaren barruan.

Lursaila bizitegi-guneetatik gertu ez badago ere, kalitate handiko paisaia hori eraldatzeak eta trafikoa areagotzeak gizartean kezka sor dezake, landazabaleko eta gertuko nekazaritza-eremuetako biztanleengan eta erabiltzaileengan bereziki.

5.2.5 Hautatutako irtenbidea

Kokapenaren ikuspegitik hiru aukerak printzipioz onargarriak direla ikusita, ondorio hauek atera ditzakegu aurreko atalean xehatutako azterketatik:

Lasarte-Donostialdeko kokapena ingurune natural baten baitan dago, eta larre eta basoek kalitate handiko paisaia eratzen dute. Nahiz eta ingurumenaren eta ondarearen alorretan baldintzatzaile nabarmenik ez duen, zerbitzuak eta sarbideak falta zaizkio. Horrenbestez, harguneekegikaritu, bide espezifiko eraiki eta plataforma egokitu beharko lirateke. Horrek egikaritze-epea luzatuko luke, eta guztizko kostua handitu. Instalazioa martxan egon bitartean, inpaktu esanguratsuena ibilgailuen zarata izango litzateke, bestelako inpaktuak ohiko baldintzetan hutsalak izango lirateke eta.

Eskuzaitzetako lursaila jada urbanizatuta dagoen industrialde batean kokatzen da, eta beharrezko sarbideak eta zerbitzuak erabilgarri ditu. Hala, habitat naturalak ez luke eraginik jasango, eta kostu ekonomikoa murriztuko litzateke, instalazioa besterik ez litzatekeelako eraiki beharko. Inpaktu nagusia ibilgailuen trafikoak eragindako zarata izango litzateke, nahiz eta inguruko beste industria-jarduera batzuek sortutakoa baino askoz ere txikiagoa izan. Gainerako ingurumen-inpaktuak ez dira esanguratsuak.

Azkenik, **Loistegikogaina** larre eta basoz eratutako eremu naturala da. Kalitate handiko paisaia da, eta ez du ingurumen eta ondare-baldintzatzailearik, inguruan intereseko espezieak badiren arren. Lehenengo kasuan bezala, plataforma egokitu eta sarbidea eta harguneak egikaritu beharko lirateke, eta horrek epeei eta kostuari eragingo lieke. Inpaktu nagusia ibilgailuen trafikoak sortutako zarata izango litzateke. Aldiz, ohiko funtzionamenduaren igorpenek, usainek eta isurketek ez lituzkete inpaktu esanguratsuak eragingo.

Matrize honek kokaleku bakoitzaren aldagai nagusien arteko erkaketa jasotzen du (ingurumenekoak, teknikoak eta sozialak):

	1. AUK. Donostialdea	2. AUK. Eskuzaitzeta	3. AUK. Loistegikogaina
Kokalekua			
Lehengo bideekiko konexioa			
Sarbideak			
Kokalekuaren egokitasuna			
Azalera erabilgarria (m2)			
Aurretiko urbanizazioa			
Lehendik dauden zerbitzuak			
Ingurune fisikoa			
Geologia			
Lurzorua kalitatea			
Uholde-arriskua			
Bioaniztasuna			
Landaredia			
Babestutako/mehatxatutako espezieak			
Paisaia			
Jardun aurreko egoera			
Jarduerak eragindako inpaktuak			

	1. AUK. Donostialdea	2. AUK. Eskuzaitzeta	3. AUK. Loistegikogaina
Eraikuntza-faseko inpaktuak			
Lur-mugimenduak			
Sarbideak			
Funtzionamendu-faseko inpaktuak			
Trafiko astuna			
Igorpenak eta zarata			
Soziala			

2. taula. Aldagai teknikoak, sozialak eta ingurumenekoak erkatzeko matrizea (Iturria: norberak egindakoa).

Oro har, lokalizazioaren ikuspegitik, hiru gunek bideragarriak dira. **Alabaina, Eskuzaitzetako aukera nabarmentzekoa da argi eta garbi, ingurumenean inpaktu txikiagoa eragiten duelako eta abantaila operatiboak dituelako.** Egonkortutako industria-ingurunean kokatzeak irisgarritasuna eta logistika errazten ditu. Izan ere, lursaileko sarbideak eta errepideak urbanizatuta daude dagoeneko, eta konexio bikaina du, ibilgailuak sartzeko eta ateratzeko.

Gainera, Eskuzaitzetako gunea dagoeneko artifizial bilakatu den industrialde batean dago, eta inpaktua jasan dezaketen ingurumen-balioak urriak dira. Esku-hartzea jada berdinduta dagoen plataforma batean egikarituko denez, ez zaio lurzoru naturalari ondorio gehigarrikerik eragingo.